

## OAuth protokoloa

Protokolo ireki bat da, honekin API baten baimenak seguruak izango dira. Gaur egun, ez da asko erabiltzen baina pixkanaka-pixkanaka gero eta aplikazio gehiagok erabiltzen dute. Gure aplikazio honentzat erabili egin dugu, Twitterrek bere APIa erabiltzeko protokolo hau erabiltzen duelako.

Kasu honetan OAuth protokoloa erabilita kontura sartzeko baimenak izango ditugu baina beti segurtasun batekin, inoiz ez dugu erabiltzailearen pasahitza ezagutuko.

Hasteko, Twitter sare sozialeko web orrialdean aplikazioa erregistratu behar dugu, horretarako, lehenik eta behin kontu bat izan behar dugu. Adibidez, nik, baneukan kontu bat beraz, nire kontutik aplikazioa erregistratzea besterik ez nuen falta. Hau da, web orrialde honetara sartu <https://dev.twitter.com/apps> eta zure kontura sartzeko datuak jarri kautotuz, "create new app" botoia sakatu eta eskatutako informazioa bete behar da gure aplikazioa erregistratzeko. Kontuan izen behar gudu gure aplikazioak zer egin nahi duen eta zein motako datuak nahi ditugun, zein nolako baimenak izango dituen gure aplikazioak, horretarako, hautatu beharko da, alde batetik tweetak retwetak, mentzioak eta faboritoak irakurri bakarrik nahi dugu, irakurritz aparte berri batzuk idatzi nahi ditugun eta azkenik irakurri idatzi eta gainera mezu zuzenak idatzi eta irakurri, beraz, kasu honetan azkeneko aukera hartu dugu, gure aplikazioan mezu zuzenak ere irakurri nahi ditugulako. Hau eginez, Twitterrek aplikazioa identifikatzeko bi zenbaki emango digu, AccessToken eta AccessTokenSecret. Horrela OAuth protokoloaren lehen zatia lortzen dugu.

Bigarren zati bat gelditzen da, gure aplikaziotik Twitterrera konexioa egin ahal izateko. Falta dena beste bi zenbaki dira baina oraingoan erabiltzailea identifikatzeko dira, Consumer key eta Consumer secret, beraz honek bi zenbakiak erabiltzailea gure aplikazioan erregistratzen denean lortzen dira.

Erabiltzaileak Twitterren kautotu beharko da Twitterrek erabiltzailea bera dela ziurtatzeko eta gure aplikazioak pasahitza ez eskatzeko, segurtasuna dela eta. Baina erabiltzailea ez da denok ezagutzen dugun web orrialdetik sartuko baizik eta gure aplikazioak sortutako esteka batetik. Esteka horrek baten bakarrik sartzeko balio du, ausazkoa da eta hau sortzeko aplikazioa AccessToken eta AccessTokenSecret zenbakiez baliatzen da, horrela Twitterrek badaki baimenak eskatzen hari duen aplikazioa zein den. Orduan erabiltzailea kautotu egiten da eta Twitterrek gure aplikazioari kontuan sartzeko baimena eman nahi dion galdetuko dio baietza eman ezkerro pina bat emango dio eta aplikazioan bertan sartu beharko du. Pina gure aplikazioan sartzeko erabili behar da eta baten bakarrik erabiltzeko da beraz ordu kopia beharra dago bestela hasieratik hasi beharko da erabiltzailea. Gure aplikazioak Twitterrekin konexioa egingo du pina eta AccessToken biak bidaliz, eta erabiltzailean baimena eman

duenez, Twitterrek falta diren bi zenbakiak emango dizkio erabiltzailearen identifikazio egin ahal izateko hurrengo aldian prozesu guzti hau ez egiteko.

Beraz, honekin badauzkagu bi zatiak eginda eta hemendik aurrera erabiltzaileak gure aplikazioa erabiltzen duenean identifikazioa errazagoa izango da. Honekin gure aplikazioa AccessToken biak bidaliko dizkio aplikazioa zein den jakiteko eta erabiltzailearen beste bi zenbakiak erabiltzaile horrek gure aplikazioari aurrekoan baimenak eman dizkion konprobatu ahal izateko, eta identifikazioa zuzena izango da. Hau lortuta pasahitza ez ezik beste informazio guztia lor daiteke aplikaziotik.